

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua sukaldaritzako klase alternatibo eta erabilgarri bat den horretan, nahiko plater basikoak eta ohikoak prestatzen irakasten dugu, eta ohartu gara gure enpresara gerturatuko diren bezero posibleak mundu guztia baino talde txikiago bat osatzen dutela, hots, segmentatutako merkatua da gure merkatuaren segmentua.

Gure bezeroaren profila, hortaz, zertxobait espezifikoa dela esan dezakegu. Oro har, gure zerbitzuaren kontsumitzaileak sukaldatzen ez dakitenak izango dira edo hobeto sukaldatzen ikasi nahi dutenak, klaseak, azken batean, hauen beharra zuzenean erantzuten dutelako, hortan datza gure zerbitzua, eguneroko platerak nola egin erakustean.

Halere, aipatu beharra da, askotan sukaldatzen jaioak ez direnak gazteak direla, izan ere, beraien gurasoekiko independentzia eskuratzen dutenean ez daude sukaldean oso prestatuak, eta komenigarria zaie sukaldatzen ikastea. Beraz, beraiei ere bideratzen diegu guk eskainitako zerbitzua.

Horrez gain, gure zerbitzuaren bereizgarri den aspektu batengatik, hots, bertan prestatutako janaria etxera eman dezaketelako bezeroak, azpimarratu dezakegu sukaldatzeko denbora gutxi duen jendea ere gerturatu daitezkeela, hauek ere astean zehar denbora ez duten horretan, gure sukaldeari esker ez dutelako denbora eskainia beharko janaria prestatzeari astean zehar.